

Zumaiako herri aldizkaria

2002ko urtarrilak 18

# BALAIKE

1,5 €

97. zenb.

## **Ihantzako komuna(k)** proposamen intimoak



Juan Belmonte, 29 behea  
tel.: 943 86 15 45  
faksa: 943 86 17 42  
email: baleike@topagunea.com

**Argitaratzailea**  
BALEIKE KULTUR ELKARTEA

**Administrazio batzordea**  
Esther Etxeberria  
Xabier Azkue

**Erredakzioa batzordea**  
Esther Aizpurua  
Eguzki Agirrezabalaga  
Antxoka Agirre  
Juan Luis Romatet

Josu Waliño  
Gorka Zabaleta

**Koordinatzailea**  
Juan Luis Romatet

**Kazetariak**  
Antxoka Agirre  
Xabier Aizpurua  
Itsaso Ibarra  
Maitane Urbieta

**Marrazkigilea**  
Jon Manzisidor

**Kolaboratzaileak**  
Miriam Romatet, Xabier Aranguren,  
Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar,  
Dani Carballo, Joxe Mari Llavori,  
Inaxio Tolosa, Inaxio Manterola,  
Belen Golmaio, Izaga Garzia, Haize  
Galarraga, Koldo Landaluze, Beñat  
Fernandez de Arroyabe, Luis Mari  
Aizpurua, Ihintz Linazisoro, Jose  
Manuel Gonzalez Aramendi,  
Ludoteka, Natur Taldea

**Argazkiak**  
Baleike, Aran Santamaria, Euskal-  
dunon Egunkaria

**Diseinua eta maketazioa**  
Argi Aizpurua

**Hizkuntz zuzenketa**  
Imanol Azkue

**Banaketa**  
Andoni Ormazuri

**Publizitatea**  
943 86 15 45 tel. (Esther)

**Inprimategia**  
Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)

**Tirada**  
1.000 ale

**Lege gordailua**  
SS-405/94

**ISSN**  
1136-8594

**Baleikek ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esa-  
nen eta iritzien erantzukizunik.**

**5** Ze berri?:  
gaztetxea noiz?

**6** Ze berri?:  
herriko abertzaletasunaren kronika



**12** Oikialdean

**13** Bazterbide  
Aizarnazabal - Altzola

**18** Kirola  
nesken futbol taldea arrisku larrian!!




**24** Kultura  
aste osoa bertsoan

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak





Esti Esteibar

## Nora goaz?

Herri baten izaera edo identitatea hizkuntzaren baitan dago. Komunikatzeko erabiltzen den hizkuntzak izaera berezia eman ohi dio gizabanakoari, eta nola ez, taldeari. Hizkuntzak kultura dakar eta honek izaera bat, herri bat.

Gure kasuan aspaldidanik gabiltza herria euskaldundu nahian. Ezerezetik ikastolak sortu eta aurrera egitea lortu zen eta egun, euskara hutsez ikasteko aukera da guraso gehienek beren seme-alabentzat egiten duten hautua. Euskaltegietan ere urteak damatzate helduak alfabetatu eta euskalduntzen.

Zalantzarik gabe, euskaldun kopuruak gora egin du eta euskararen ezagutza-maila ere gorantz doa.

Halere, euskararen erabilera jaitsi egin dela esango nuke eta ez da urrutira jo behar horretaz jabetzeko; Zumaia kale eta tabernetan ibiltzea nahikoa da. Erdara barra-barra entzuten da, baita euskaldun zaharrez osatutako taldeetan ere, eta Zumaia adibide bat besterik ez da.

Identitatea galtzen ari ote gara?



dekorazioa

**ALBERDI**



696 726188  
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

*Alberdi*

*Gizonezkoen moda*



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155



**ALGORRI TABERNA**

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIÀ 943 862543

# Gaztetxea: oraingoan bai?

Gaztetxe baten beharraren gaia aspalditik dator. 1980ko hamarkada erdialdera, Rock Radikal Vasco delakoa bere gorenean zegoenean izan zen Gaztetxeen aro oparoena. Tailerrak, kultur ekitaldiak, kontzertuak nonahi, etab. Euskal Herriko herri eta hiri askotan ireki ziren Gaztetxeak, bai okupatutako etxeetan, bai zenbait udal aurrerakoiek utzitako lokaletan. Zumaian, ohi bezala, ez zen halakorik gertatu, eta herriko gazteek taberna-zuloetan ito behar izan zituzten iraultzarako gogoak. Orain, pezetan ordez poltsikoan euroak ditugun honetan, Gaztetxe eske hasi dira herriko zenbait gazte. Beren helburua lortzea zaila izango badute ere, zalaparta ateratzeko prest agertu dira.

Hainbat koadrilatako lagunak elkartu eta Gaztetxea aldarrikatu dute. Taldeari Zumaiaiko Gazteak izena jarri diote, eta jada zenbait bilera izan dituzte. Biler horietako batean taldea ez politizatzea erabaki zen, ahalik eta irekiena izatea, azken finean. Taldearen lehen mugimenduetako bat beraien eskaeraren berri ematea izan da; horretarako, egunkari batera gutuna bidali dute. Arazoaz ohartuta, badirudi Udalak bilera egin nahi duela gazte talde honekin.

## Etxabeak topagune

40-50 lagun ingururekin egin genuen topo Itzurunbideko etxebizitzetako



etxabeetan, hura baita gazteak biltzeko lekua. Monopatin batzuk eskaileretan, hautsitako zakarrontzi bat lurrean eta adoleszentzian murgildutako gazte mordoa. Argi dute orain bezala ezin dutela jarraitu, kalean bueltaka, etxebizitzetako etxabeak eta atariak okupatzen eta bizilagunekin haserretzen. Zenbait gauza egiteko, gazte koadrilak biltzeko leku baten beharra dutela aipatzen digute, beren esanetan, ezin baitute, txakurrak bezala, kalean bueltaka ibili. Euria eta hotza egiten duenean, gainera, arazoa areagotu egiten dela diote.

Herri osoko 17-18 urte arteko hainbat gazte biltzen dira Zuhazbide auzategiko etxabeetan. Bizilagunekin izan dituzten arazoak direla medio, beste toki batzuetara joan beharrean aurkitu dira sarritan. Leku haietan arazoak errepikatu dira eta berriro hasierako lekura bueltatu behar izan dute. Herriko ia leku guztiak bisitatu omen dituzte dagoeneko, eta toki

guztietan arazo berbera errepikatu dela diote.

Auzategiko bizilagun batzuek diotenez, kokoteraino daude gazte hauekin. Bizilagunei errespetu falta, zikinkeria eta ateratzen duten zarata dira, besteak beste, kexetako batzuk. Pazientzia erabat galduta, behin baino gehiagotan deitu diete udaltzainei. Hasieran udaltzainei kasu egiten omen diete, baina ordubete eskasera bueltan izaten direla.

Arazoak berriz ere ez gertatzeko, lokala eskatu diote Udalari gazteek. 16 urte bitarteko gazteentzat topaleku bat jarriko delako zurrumurrua entzun dutela diote. "18 urte dituztenek zer egin behar dute, tabernan sartu?", erantzun du gazte batek.

Badirudi beraien eskakizunekin aurrera joateko asmoa dutela. Antolatzen hasiak dira, behintzat. Agian aurreko belaunaldiek lortu ez zutena lortuko dute gazte hauek. Nork daki!

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

**EGOKI**

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

# Herriko abertzaletasunaren historiari buruzko liburua

Foronda,  
prentsaurrekoaren  
irudia.



Antxoka Agirre

1999aren azken aldera Batzoki zaharrean Erkibe Kultur Taldeak antolatu zuen "Abertzaletasuna, 1931-1940" erakusketa izan zen liburuaren sorburua. Dezenteko arrakasta izan zuen herrian eta Zumaiaiko euskal abertzaletasunaren bilakaeraren gaineko historiografian zegoen hutsunea ikusirik, liburu batentzako abiapuntu egokia izan zitekeela pentsatu zuten. Sabino Arana Fundazioa jo zuten, eta haiek proiektua

beren gain hartu eta Miren Barandiaran historialari beasaindarra proposatu zuten lanerako. "Zornotzako abertzaletasunari buruzko liburua bukatu berria nuen, eta aurkezpena Joseba Esnal azaldu zen proiektuarekin", gogoratu du Mirenek.

2000ko udaberrian hasi zen bilketa lanetan. Hemen bilduta zegoena, Artea eta Irargiko Dokumentazio Zentroetan gordetakoak eta batik bat garaiko aldizkari eta egunkarietan jasota zeudenak izan ziren bere aztergai

nagusiak. "Franko sartu arte, lehenengo 'Gipuzkoarra', gero 'Euzkadi' eta azkenik 'El día'k herrietako albisteen sekzioa izan zuten. Oraingoekin alderatuaz oso politizatuak zeuden herrietako albisteok, eta zumaiarrek idazteko ohitura handia zuten, asko balio izan didate", kontatu digu. Testigantzak ere jaso ditu, hamabost bat gutzira, garai eta joera politiko ezberdinetakoak.

## Sabino Aranaren bizarra

Liburua, herriko abertzaletasunaren sorrerarekin hasten da, XX. mendeko lehen urteetan. "Sorrera bera da agian Zumaiaiko kasuaren bereizgarri nagusia. Herri turistikoa izanik, udatarrek, Zelaia edo Enbil bezalako Bilboko familia dirudunek ekarri zuten abertzaletasuna Zumaia. Informazioa, ekitaldiak finantzatzeko dirua... jarri zituzten", dio Mirenek. Prentsa abertzalearen lehen agerpena 1907an; lehenengo Batzokia 1909an; lehen zinegotzi abertzalea 1911n; antzerkia, mendi-txangoak, erromeriak... propagandarako tresna gisa. "Bitsienetakoa lehen Batzokiaren inaugurazioaren historia da. Lokala lehenago ireki zen, baina inaugurazioa uztaileko programatu zuten jendetsuagoa izango zelakoan. Eguna iritsi zenean, ordea, EAJek Sestaon antolatuturiko euskal jai batzuekin kointziditu zuen eta suspenditu egin zen. Abuztuan jarri zuten hurrena, baina eguna iritsitakoan 'semana trágica' rekin kointziditu zuen, huelga batzuegatik setio egoera deklaratu

## Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330

## GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

## ALTZARIAK OSTOLAZA AROTEGIA



Mota guztietako  
altzariak eta  
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325

zuen gobernuak, eta berriro suspenditu. Hurrena alkate karlistak oztopatu zuen, eta azkenik, urrian, bertan zegoen ikurrina bat bedeinkatu eta halaxe jo zuten inaguratutzat", kontatu digu.

Lehen atalean sarrera egin eta bigarrenean Primo de Riveraren 1923ko kolpeak eten zuen hasierako etapa azaldu ondoren, hirugarrenean errepublika garaiari heltzen dio. Oso dinamikoa eta emankorra izan zen garai hau euskal abertzaletasunarentzat, eta Zumaian ere EAJ lehen indar politiko bihurtu ez ezik, gehiengoa eta alkatetzat ere eskuratu zituen. Batzoki berriaren eraikuntza lanak, Autonomia Estatuaren aldeko borroka, hauteskunde-etako lehia, euskal kulturaren hedapena eta mugimendu abertzalean emakumeak izan zuen parte hartzea dira, besteak beste, atal honetan jorratzen diren gaiak.

### Frankoren bibotia

Laugarren atalaren ardatza Gerra Zibila da. 1936ko irailaren 21ean herria nazionalen eskuetan erori aurretik antolatuta zen erresistentzia, nazionalen martxa oztopatzeko bezperan zubi txikia bota zuena, eta data horretatik aurrera garaileek ezarri zuten errepresioa azaltzen da bertan. Konfiskaturiko ondasunak, 'desagertu' riko dozena bat lagun, umilazio publikoak eta abar. Kanporaketei atal berezia eskaintzen zaie: 256 zumaiar bidali zituzten herritik, Euskal Herri osoan kanporatu gehiena izan zuen herria da gurea, eta batzuk bizpahiru urte egin behar izan zituzten noraezean itzuli ahal izan aurretik.

Bosgarren eta azken atalean Frankoren garaian abertzaletasunak izandako bilakaera aztertzen da:



Miren Barandiaran Contreras, liburuaren egilea.

lehenengo urteetako errepresioa eta isiltasuna; abertzaletasunari bizirik eusteko ahaleginak; 60ko hamarkadatik aurrera gertaturiko eraldaketak; ETaren sorrera eta horren ondorioak; abertzaletasunak Zumaian garatutako kultur jarduerak, diktaduraren azken astinduak... "Atal hau izan da lan gehiena eman didana. Prentsa abertzalea erbestetik egiten da eta ez dauka herrietako albisteak emateko modurik. Izatez, herrietan ez dago albiste handirik ere. Zumaian, beste toki askotan bezala, abertzaletasuna erabat isilik gelditzen da, familien barruan", azaldu digu Mirenek. Testigantzen bidez egin behar izan du etapa hau, eta Frankismoaren bigarren erdian abertzaletasun berria sortzen denez, bateko eta besteko jendearekin egoten saiatu da. "60ko hamarkada arte abertzaletasunaren historia EAJen historia da. ANV ere hor zegoen, baina indar gutxi zuten eta ez dut inor topatu. Gero, Ezker Abertzalea deituko zaiona sortzen

denetik aurrera saiatu naiz ikuspegi globala jasotzen", dio.

Azkenik, liburuak eranskin bat dauka euskal abertzaletasunak 1977-2000 bitarteko hauteskundeetan izandako bilakaerari buruz.

"Aurreko generazioei, batik bat gerra eta diktadura jasan zutenei eginiko errekonozimendua da liburu hau."

Abenduaren 20an Aita Mari zinean egin zen aurkezpena. 'Abertzaleak Zumaian: ibilbide luze baten arrastoan' dauka izenburutzat, euskaraz idatzia dago eta guztira 300dik gora orrialde ditu. Aleen erdiak Sabino Arana Elkargoak liburutegietan banatuko ditu eta beste erdiak Erkibe Kultur Taldeak Zumaia dendetan.

"Aurreko generazioei, batik bat gerra eta diktadura jasan zutenei eginiko errekonozimendua da liburu hau. Euren testigantza eman didatenek ere horrela hartu dute: urteetan euren historia debekaturik egon da eta orain idatzita geldituko da. Eta gerora bere balio historiografikoa ere izango du. Abertzaletasunaren historia orokorra 80ko hamarkadaren erdialdean hasi ziren idazten eta egun nahikoa landuta dago, baina herrietakoan hutsune nabaria gelditzen da eta historia orokorra hobeto ezagutzeko osagarri bikaina izan daiteke", bukatu du Mirenek.



GAZTE, S.L.


ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23  
Tel. mugikorra: 608 143409










## arte "Komunista"

Norbaitek 'Arriba España' idatzi zuen komuneko atean. Atzetik zetorrenak hizki pare bat aldatu zizkion, 'Arriba PEstaña', eta horrela sortu zen komunetako eztabaida politikoa. Hurrena sartu zen bati, maite-minduta, 'zu zara nire izarren sabaia' idaztea otu zitzaion, eta komunetako olerkigintza jaio zen. Beste batek Tolstoiren liburu bat utzi zuen ahaztuta eta komunetako irakurzale-tasuna sortu. Izan ere, bakardadean, isilik eta ikusmiran, meditaziorako aproposak izaten dira komuneko minutu horiek. Ihintza tabernak ere egin nahi izan du bere ekarpena eta berri zutenetik herriko hainbat artistak euren lanak bertako komunean jarri dituzte ikusgai.



**ilarzi**

Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

**ekin** **ISTALAZIO ELEKTRIKOAK**  
**TELEKOMUNIKAZIOAK**  
elektrizitatea, s.l.

Erribera kalea 18 Behe TF/fax:943 143097  
20.759 Zumaiak ckin@ekin.com

Istalatzaile/banatzaile ofiziala



CANAL+ VÍDEO  
CANAL DIGITAL

Telebés  
Premier Office

Clouster  
Movistar  
Clouster  
Movistar

**LEIZE**  
taberna

Juan Belmonte, 6



Duela bi urte taberna berri zuten, Aran Santamariari eskatu zioten komuna diseinatzeko. "Txiki eta Ander Hormazuriri mural bana eskatu zieten tabernako horma nagusiak apaintzeko eta niri komunaren diseinua. Ez daukat ikasketarik arlo horretan, baina asko gustatzen zait eta koadro bat edo murala eskatu balidate baino ilusio handiagoa egin zidan kasik", adierazi digu. Azulejo koloretsuz eta umeen laino urdinez bete zuten komuna. Argia itzalitakoan ikus daitezkeen izar eta laino fosforitoak ere itsatsi zituen sabaian. "Komunen sarreran argizko kaxa bat sartzea okurritu zitzaidan lehenengo eta barruan zerbait sartu zitekeela ondoren. Azkenik, hilero zerbait ezberdina sartzeko konpromisoa hartu nuen tabernakoekin eta halaxe jarri nintzen martxan", dio.

"Agian helburua izan liteke jendeari sorpresa bat ematea"

Argizko kaxa hau bitrina moduko bat da, luzeran metro bat, altueran 40 cm, sakoneran 15 cm eta gainaldean bi argi dituen. Barruan sartu dituzten artelanak, berriz, proposamen bezala katalogatuko lituzke Aranek. "Instalakuntzak izateko txikiak dira. Erdaraz toki jakin baterako egiten diren lanei 'propuesta' deitzen zaie eta nik halaxe, proposamenak, deituko nieke", azaldu digu.

Artelanak komunera eramaterakoan intentzio berezirik, artea sozializatzea edo, ote zuten galdetu diogunean ezetz erantzun digu. "Helburu hori izanez gero, hobe litzateke artelanen katalogoak buzoneatzea. Alderantziz, Ihintzakoa gauza intimo txiki bat bezala ikusten dut, zerbait anekdotikoa. Horrelako gauzak asko gustatzen zaizkit... Agian helburua izan liteke jendeari sorpresa bat ematea", adierazi digu.

Urtarrilean, dekorazioari lotuta, algodoizko lainoak jarri zituen. Otsailean 'sugus'ak azulejoei, txikiak eta koloretsuak, 'sugus'en tankera hartzen zitzaielako. Martxoan esponjekin eginiko laino eta tantunak. Apirilean kromoak. Maiatzean barrua gastatutako xaboiak.

B. Etxegarai 2, behea  
943 86 27 14

Y  
I  
N



Y  
I  
N

GAZTEEN ERROPA

**ZALLA**  
Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4      Tel. 943 862387



**Zerbitzu Ofiziala**  
**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
Tel./Faxa: 943 143143






urtarrila  
Ander  
Hormazuri



otsaila  
Ismael  
Manterola



maiatza  
Klaudio  
Monreal



ekain  
Txipi

"Kutxara batekin forma ezberdinetako transparentziak egin nizkien barruan eta oso argi polita ematen zuten, alabastroarena bezalakoa", dio. Komuneko materialekin martxa hartu eta orraziak, komuneko papera, belarriak garbitzeko bastoitoxoak eta desmakiladoreak erabili zituen hurrengoetan. Azkenik, hortzeria baten argazkiei etxean bilatutako urrezko postizo batzuk itsatsi zizkion urrian; kondoi batzuk puztu eta bihotz eta lainoak sartu zizkien azaroan eta abenduan, gabonekin lotuaz, kopa eta aingeru ogiarekin bete zuen kaxa.

"Joe, zumaia hauek ke modernidades"

Urte guztian zehar komentario dexente iritsi zitzaizkion jendearen aldetik, bai zuzenean eta baita tabernarierekin entzun eta pasatu zizkietenak, eta gustura dago ideiak izan duen harrerarekin. "Batzuek ez zioten kaso handirik egingo eta beste batzuei gustatuko zitzaien. Badakit bat edo beste artelana ikustera bakarrik sartu izan dela komunean", dio. Sorpresa izan omen da jendearen erreakzio ohikoena. "Gogoratzen dut festa batzuetan, Santelmoak zirela uste dut, eta jaboia zeudela kaxan, kolan zain nire aurretik zeuden kanpoko hiru mutil ari zirela euren artean lana komentatzen. 'Joe zumaia hauek ke modernidades, ke istorias', batek, eta 'elegante, elegante', besteak. Grazia handia egin zidan", azaldu digu.

Izan ere, ideia nahikoa originala baita. "Bai egia da, ez dut beste inon komunetan horrelako gauzarik ikusi. Duela gutxi Bartzelonan antzeko inbentu bat ikusi nuen, baina tabernaren sarreran zegoen jarrita", dio.




INMOBILIARIA

**Amara**


Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

**SAION**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151




abuztua  
Imanol Ossa



iraila  
Bigara



urria  
Jon  
Manzisor



azaroa  
Juan Luis  
Blanco

Ideiak funtzionatzen zuela ikusita, bigarren urterako hilerro herriko artistetako bati eskatzea erabaki zuen. "Jendeari aldaketak gustatzen zaizkio eta artistei tokia uztea zela egokiena iruditu zitzaidan", azaldu digu. Zerrenda bat egin eta baiezkoa eman zioten denek, tartean baita tabernako bi nagusik ere. Egutegia osatu zuen izenekin eta aldaketetarako datekin, eta urte hasieran denei banatu zien. Eguna iristean, taberna itxita dagoela ahal bada, goizetik aurrekoa desmontatu eta arratsaldean berria jartzea izan da lan guztia. "Tokia txikia denez ordu gutxitan egin daiteke montajea. Bakoitzak ideia eta materiala aurretik prestatuta ekartzen zituen, kaxa bete, itxi, trago bat hartu eta listo", adierazi digu.

2001ekoak ere ondo funtzionatu zuen eta beste urtebete jarraitzea erabaki dute. "Herriko artistekin egingo dugu beste urtebete. Martxora bitartekoak jada lotuta daude eta ez dut uste beste hamar bat lagun bilatzeko arazo handirik egongo denik", komentatu didgu. Aurrerago kanpoko artistak ekartzeko asmoa ere ba omen du Aranek. "Datorren urtea urruti dago oraindik eta auskalo, baina izen ezagun batzuk badauzkat buruan", dio.

## Komunak eta artea

### GIZARTEKINTZA zentru soziala

#### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309



## 1944. urtetik gaurdaino, abenduaren 8an

*"Oiquinako mutil gaztediak artudu asmobat anaitasun ede sociedade bat jartzeko gure artean, 1944, milla bederatzireun-da beroeta laugaren urtean abenduaren zortzian, gure arteko enbati guertatzen bazayo bere arimaren kontua emanbeara Jaungoikoari eguingo zayo elizkizunbat bere arimaren alde, ondorengo kondicio abek aguintzen duten becela: (...) "*


Hala diote belaunaldiz belaunaldi eskuz esku igaro den liburu honen lehen lerroek. Gaur egun, besterik gabe "ezkongabeen bazkaria" bezala ezagutzen denak 1944an du bere jatorria eta akten liburuan suma daitekeen moduan, gerraosteko egoera latzean izan zuen sorrera. Guda Zibilak utzi zuen gizarte krisia zela eta, herri xumeak ez



zuen hildakoei meza berezia atera eta ordaintzeko dirurik; beraz, elkarte sortu zuten denen artean kostuei aurre egiteko. Liburua irakurtzen jarraituz jakin daiteke elkarteak bere "kondicio" bereziak dituela: zahar eta gazteek berdin ordainduko dute elizkizunaren 150 pezetako kostua; jaunartze handia eginga duen edozein ezkongabek sartu ahal izango du elkartean eta ezkon-

tzean irten egingo da; elkarteko sekretarioaren "Obligasiyua da Apaiz jaunaquin enteratzeko" noiz den meza berezia; abenduaren 8ko bilerara etxe bakoitzetik gutxienez batek joan beharko du, joaten ez bada faltaturiko etxekide bakoitzak 5 pezetako isuna ordainduko du; morroiek herri-tarren eskubide berdinak izango dituzte...

Horrela, 57 urte daramatzate Oikiako mutil ezkongabeak ohiturari jarraituz, askotan elkartearen jatorriari begiratu ere egin gabe. Aurten ere abenduaren 8an bildu ziren, gero eta goizago den mezara joan eta ondoren hamaiketakoa egiteko. Dena dela, badago kritikarik elkarte honen inguruan, bertako legeak liburuko idazkera bezain zaharkituak geratu direla pentsatu, eta emakumeen sarrera onartzeko ordua badela diotenak, hain zuzen ere. XXI. mendeak esango du liburuaren orri hutsak nola beteko diren.



  
**AIZPURUA**  
 LIBRURUEN  
 DENDA  
 Aita-Mari auzategia, 17  
 Tel. 943 861569

### Antonio Etxabe



Gizonezkoen  
 erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

  
**ARGIA**  
 ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224



# zer moduz moldatzen dira zumaiarrak euroarekin



**Lurdes Gutierrez**  
Egia dana da jendiak oraindik pezetatan daukala burua, eta adibidez zenbat ekarri behar duten ez dutela kontrolatzen... baina joango gara moldatzen.



**Erlantz Esteibar**  
Arazo haundiena txanpona besterik ez dagoela. Ordaindu behar duen bakoitzean jendeak barra gainean ustutzen du kartera guztia. Gainerakoan behin prezioak ikasiaz gero pezeta baino erosoagoa da kalkuloak egiteko.



**Tere Lorente**  
Umeak dira azkarren ikasten dutenak. Joan den asteburuan bataioak egon ziren eta umeak duro pila batekin etorri zitzaizkidan, baina normalean xentimoak ibiltzen ditugu.



**Anton Seguro**  
Zarrak ondo ikasita datoz, hogarrian ikastaroren bat hartuta edo... Jendea euroagatik ez da kexatzen baina prezioagatik bai pixkat redondeatu ditugu eta.



**Itziar Intxaurre**  
Ondo. Jendia oso azkar hasi zan euruakin eta dagonekoz ez da pezetarik ikusi ere egiten. Jendeari gehiena kostatu dena txanponak ezagutzea izan da.



**Esther Martinez**  
Jendeak ez ditu prezioak kontrolatzen eta eta gutaz fidatu behar izaten dira. Lehen baino gehiago ikusten da ordaintzeko orduan dirua ez iristea eta 'bihar ordainduko dizut!' esan beharra. Diber-tigarria da.

**Arkupe**



Okjndegia  
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

ad

**AUTOS  
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

Karmengo Ama, 14  
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès  
french  
euskarà  
englantì  
español  
catalonian  
suomi basc  
catelà finnois  
francès anglès  
catalán française  
castellano finnish  
ingles baski catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

# Zumaiako Futbol Taldeko nesken taldea arriskuan lege berri baten ondorioz



Maitane Urbieta Aizpurua

Zumaiako FTko nesken taldea hurrengo urteetan taldea osatzeko arazoetan egon daiteke, Gipuzkoako Futbol Federakuntzak atera nahi duen lege baten ondorioz.

Legearen helburuak Gipuzkoako emakumezkoen futbolak dituen akats edo hutsuneak gaintzea da eta helburu nagusia emakumezkoen futbolak Gipuzkoan indarra hartzea da.

Legearen helburuak finkatu baino lehen, Gipuzkoako emakumeen futbol taldeen egoera ezagutzeko azterketa bat egin zen. Azterketak erakutsi duenez, Estatuko taldeek Gipuzkoakoek baino indar ekonomiko handiagoa dute, eta, ondorioz, bertako neskak fitxatzen dituzte beraien taldeetan jokatzeko, askotan txanpon batzuen truk.

Horregatik, GFFk talde lider bat sortu nahi du Estatuko ohorezko mailan jokatzeko. Taldea Gipuzkoako jokalaria onenek osatuko lukete eta Realak da taldea zuzentzeko aukera gehien dituen.

Hala ere, arazoak Zumaiako neskenentzat ez dira hemen hasten. Jakinaenez, futboleko mailak ez daude adin bereizita, hau da, 14 urteko neska batek 25 urteko neska batekin joka dezake talde berean. Hori GFFrentzat oztopoa da, beraien ustez oso zaila baita 14 urteko neska bat zaharragoak diren taldekideekin integratzea eta gainera batak zein besteak beharko luketen entrenamendua desberdina dela diote.

Hori guztia kontuan hartuz, bi maila ezarri nahi dituzte, bata 18 urtetik beherakoa (14 eta 18 urte bitarteko neskek osatua) eta bestea 18 urtetik gorakoa. Hori ikusirik, Zumaiako neskak kezkatu daude, batik bat 18 urte baino gehiago dituztenak, ikusten baitute legeak aurrera jarraituz gero oso zaila izango dutela taldea osatzea, ez baitago adin horretatik aurrera futboleko jokatzeko gogorik duen neska askorik.



Ortega y Gasset, 2  
Tel: 943 86 22 06



Alai Auzategia, 14 behea  
Tel: 943 14 31 12



Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Baina egokiena beraien iritzia eta gaur egungo egoera zein den galdetzea izango da: Horretarako, taldeko kapitaina, Esti Mora, eta entrenatzaileak, Itziar Beristain eta Eva Romatet, ekarri ditugu:



**Zer iruditzen zaizue atera nahi duten lege berria?**

Adinetan banantzea egokia da, baina talde asko desagertu daitezke. Guk talde bat osa genezake, baina bederatzita bat jokalaria talderik gabe geratuko liriteke. Gainera, neska gutxi dago futboleko aritzen dena, ondorioz, zaila da bi talde osatzea, batez ere herri txikietan. Hau guztia talde handiek beraientzat pentsatutako gauza da.

**Aldageletan giro ona al dago? Hau da, 14 urtekoak taldean integraturik daude?**

Integraturik bai, baina adinaren kontu hori igarri egiten da; hala ere, denon artean ondo eramaten gara.

**Zuen lehen urtea da entrenatzaile moduan. Zaila al da? Pazientzia handia behar al da nesken taldeak entrenatzeko?**

Bai, zaila da eta pazientzia handia behar da. Gainera, guk taldea denboraldia hasita zegoela hartu genuen eta, horrez gain, jokatzeko egotetik taldea entrenatzen hastera aldaketa handia izan da guretzat. Batzuetan, gainera, ez gara denera iristen, baina beste pertsona baten laguntza dugu atezainak entrenatzeko, Esti Garcia Osarena.

**Aurten denboraldi bikaina egiten ari zarete; hala eta guztiz ere, zuen jokalaririk ez dago selekzioan. Zergatik?**

Maila altuagoko taldeetan bakarrik fijasen direlako, nahiz eta gure taldean selekzioan jokatzeko moduko jendea badagoen.

**Denboraldi hasieratik hona jende gehiago joaten al da zuen partiduak ikustera?**

Pixka bat gehiago bai, baina normalean gurasoak eta lagunak. Pena da jende gehiago ez etortzea. Hala ere, etortzen den jendea gustura egoten da gure partiduak ikusten, baina kontuan eduki behar dute mutilen partiduak eta neskenak ez direla berdinak.

**Klubean berdintasunez tratatzen dira mutilen eta nesken taldeak?**

Inoiz baino gehiago, nahiz eta igartzen diren gauza batzuk, baina normala da. Zuzendaritza taldearekin eta gainontzeko entrenatzaileekin oso gustura gaude, denak laguntzeko prest daude, oso giro polita baitago.

Tel. 943 860000

**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA

## SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

*fidatzeko baimen guztiak*

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416



**EGUZKI**  
PUB

*Koktel bereziak*

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

**expert**

**ELEKTROGAILUAK**

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6 Tel. 943 861078

**KAFETEGIA**  
**GAROA**  
JATETXEA

**TXOMIN AGIRRE KAIA**  
TEL. 943 86 21 81



Oliden eta  
Atorrasagasti

## Jolasean hasi, txapeldun amaitu

Xabier Aizpurua

Abenduak 23 zituen, kalean hotza zen nagusi eta baita pilotaleku barnean ere. Zumaiako eskuz binakako pilota txapelketa herrikoiaren finala jokatu behar zuten pilotariak izan zuten nahiko lan gorputza berotzen. Batetik Oliden eta Atorrasagasti, bestetik Ruiz eta Ariala. Partida hasi zenean ez omen zeuden beraien onenean, Atorrasagastiren hitzetan, "berotu gabe geunden eta horregatik egin genituen akatsak igarri egiten ziren". Dena dela, ezin esan gaizki hasi zirenik, markagailua 5-0 zegoenean aurretik baitzeuden. Handik aurrera 15 tantora arte aurretik baina tarte handirik gabe joan ziren. Partida luze zihoan, pilotada askokoa zen jokia eta ez zen tanto motzik. Hala ere, Oliden-Atorrasagasti bikoteak errenkadan beste sei tanto egitea lortu zuten eta 21-16 jarri zen markagailua. Giro aparta harmailetan. Aurkariak tanto bakar bat gehiago egiteko aukera besterik ez zuten izan; 22-17 eman zioten amaiera partidari.

### Gazteak nagusi

Nahiz eta txapelketan zehar adin ezberdinetako pilotariak ikusi, gazteenek soilik lortu zuten finalera iristera. Izan ere, inork ere ez ditu 18



urte baino gehiago, eta Aitzol Olidenean kasuan, txapelketako pilotari gazteenetarikoa txapeldun bilakatu dela esan dezakegu, 16 urte besterik ez baitauzka. Honela, bada, normaltzat jo genezake finala hasi aurretik izandako sentsazioak, Aitzolek esan digunez urduri zegoen, "aurretik beste hiru final jokatu naiz, baina galdu egin nituen. Hemen, berriz, aukera ikusten nuen irabazteko, aurkariak ligatxoan irabazi baikenien, eta horregatik nengoen urduri".

Bi txapeldunak urte asko daramatzate pilota munduan, eskola arteko partidak jokatuz, pilota eskolan jardunaz... batez ere jolas egiteko asmotan. Eta horrelaxe eman omen zuten izena txapelketarako ere; Imanolek, behintzat, hala dio, "frontoian geunden batean, izena emateko papera ekarri zuten. Aitzolek

bikoterik ez zuela eta, nik ere ez nuenez, ba, elkarrekin aurkeztea erabaki genuen". Horrela, partida joan eta partida etorri, txapela eskuratu dute. "Hasierako partidetan jolasean ibili ginen eta pixkanaka guztiak irabazten ari ginela ohartu ginen. Orduan, zerbait gehiagora iristea posible zela pentsatu, eta gogorrago saiatzea erabaki genuen", adierazi digute.

Finalean frontoian zegoen giroa apartekoa zela esan dute, alde batetik piraguista taldea, eta bestetik Oikia aldetik joandako tropela builaka eta animuak emanaz. Amak ere pozez gainezka omen dituzte, baita lagunak ere. Horrek aurrera jarraitzeko indarra ematen omen die, eta bide berberari eusteko asmoa dutela esan dute. Egañari entzunda bezala, txapela plazan bertan galdu behar omen da-eta.



**gofi**  
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

English School  
**Harvest**

**Ingeleseko klaseak adin guztietan**

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

**ILEAPAINDEGIA**

**TRUITZ**

San Telmo, 12  
Tel. 943 860760



## Gabon Saria, edo kirola egiten tripa festen garaian

Txalotzekoa da zumaia batzuek kirolarako duten grina. Tripa festa eta nahi adina edatea zilegi den Gabonetako festetan (bai, aurten ere "kanta aleluia" eta "din-dan-don" madarikatuak entzun behar izan ditugu bozgorailuetatik; ea datozen Gabonetan bake santua ematen diguten), herritar talde batek kirola egiten jarraitu du. Masokismoa? Nork daki. Kontua da herritar gehienak, digestioa egiten, sofan botata geundela, beste batzuek Lubaki kiroldegian antolatutako Gabon Sarian parte hartu dutela. Ziur, gero, besteok adina jan eta edan dutela, baina, hala

ere, beraien meritua txalotu behar da. Ez zarete makalak, errediola!

Hiru kirol mota izan dira aurtengoan ere Gabon Sarian: areto futbola, paddlea eta xakea. Taldeka, bikoteka eta bakarka. Parte hartzaile kopuruari dagokionez, aurreko urteetako kopurua izan da. Areto futboletan bost taldek eman zuten izena, paddle-ean zortzi bikotek eta xake txapelketan hamaika parte hartzaile izan ziren. Gehienak zumaia ziren, baina xakean azkoitiar eta zestoarrak ere izan dira lehian.

Areto futboleko txapelketa hiru egunetan jokatu zen, 24, 29 eta 31n.

Tald egutzik parte hartzen zutela-eta, txapelketa azkarra jokatzearabaki zen. Lehen egunetan ligaxka jokatu zen eta urteko azken egunean finala. Partidu berdindu baten ondoren, EG.PG. taldeak irabazi zuen txapelketa. Estu-estu, 5-4 gailendu zitzaion Axier Kirolak taldeari. Hirugarren postuan Peña Las Petas sailkatu zen eta laugarren Anboto. Azken bi horien sailkapena erabakitzeko, aurreko partiduetan izandako emaitzen batez bestekoa atera zen.

Xake txapelketa urtarrilaren 3an jokatu zen Lubaki jatetxean. Hamaika parte hartzaileak bi taldetan banatu ziren eta beraien artean partidak jokatzeari ekin zioten. Hamar minutu inguruko partida azkarretan jokatu zen txapelketa. Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuak finalerdietara pasatu ziren. Finalera azkoitiar bat, Juan Carlos Valor, eta zestoar bat, Egoitz Irure, heldu ziren. Partida azkar baten ondoren, garaikurra Azkoitiara joan zen. Hirugarren postua zumaia batek lortu zuen (Miguel Manterolak) eta laugarrena Miguel Angel Ruiz azkoitiarra sailkatu zen.

Xakean bezala, paddle-ean ere bi taldetan banatu ziren parte hartzaileak. Ligaxkaren ondoren, urtarrilaren 4an jokatu ziren finalerdiak eta finala. Azken partiduan Huertos-Arrieta eta Urbieta-Telleria bikoteak izan ziren aurrez aurre. Udako sarian finala jokatu zuten bi bikoteak, alegia. Finala Urbieta-Telleria bikoteak irabazi zuen, partidua 7-5, 7-5 irabazi ondoren). Hirugarren postuan Lazkano-Zeberio sailkatu ziren eta laugarren Luluaga-Aranburu bikotea.

Hala joan zen Gabon Saria. Urte amaiera honetan gehiago.

**ITSASKI**  
SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058

*ileapaindegia*

**I Z E T A**

Urumea, 6 Tel. 943 862083



taberna  
**JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

# olarro zopa

Izaga Garcia. **Dietista**



## Medikuntza naturala

### Garbiketa prozesuak

Urte berria hasita dagoenean, gure buruari askotan gero beteko ez duguna zin egiten diogu: erretzeari utziko diogula, kirol gehiago egingo dugula, elikadura egokiagoa beteko dugula, azken finean bizimodu osasuntsu eta zoriontsuagoa izango dugula. Baina norberak bere osasun arazoan aurrean hartzen duen jarreran datza sendabidearen gakoa. "Mens sana in corpore sano", dio esaera erromatar ezagunak; beraz, hausnarketa prozesua ezinbestekoa da benetan geure osasunaren alde zerbait egin nahi badugu.


Gabonetan egin ditugun gehiegikeriak osasunaren kalterako izan dira: alkoholdu edariak, koipedun elikagaiak, gozokiak... Gorputzari lan handia eman diote digestiorako, eta, gainera, toxina asko pilazten dituzte eta hainbat gaixotasunen agerpenean eragina izango dute. Toxina horiek odola azidifikatzen dute, azido eta alkalinoen oreka puskatzen baita. Geure osasunaren alde zerbait egin nahi badugu, oreka berriz normaldu beharko da, hau da, desintoxikazio prozesua egin beharko dugu. Desintoxikazio prozesu honek garbiketa fisiko eta psikologikora eramango gaitu.

Garbiketa prozesua egitea hainbat eratan planteatu dezakegu. Baraualdi zorrotzetik hasita (bestalde, benetan eraginkorra) norberaren arazoei egokitutako garbiketetara, aukera handia dago prozesua egiteko garaian. Prozesua gustura egitea ezinbestekoa da; horregatik, atsegin edo errazena aukeratuko dugu. Bost egunetan fruitu eta barazkien zukuak besterik ez hartzeak gorputza asko desintoxikatzen du: ura, infusio edo salda garbigarria edanez lagun dezakegu prozesua. Garbiketa prozesua luzatu nahi badugu, askoz hobeto, baina elikagai batzuen gabezia kaltegarri izan ez dadin, beste modu bat aukeratuko dugu prozesua egiteko: arroz integrala eta sagarrak besterik ez jatea astebetetz, edo sirope de savia famatua bezain eraginkorra.

• **Salda garbigarria:** jarri egosten 250 g tipula, 250 g letxuga hosto, 250 g azenario, 2 sagar, apio pusketa bat, baratxuriak eta 2 litro ur. 40 minututan sutan eduki, iragazi eta hartzerakoan, nahi izanez gero, limoi ura erantsi.

Jende guztia animatu nahi nuke urtean behin bada ere, desintoxikazio prozesu bat egitera, baina gogoratu gaitz sendaezinak, diabetesa, bihotzeko gaitzak... badaude, beti ere egokiagoa izango dela sendagile edo terapeuta naturistarekin

hitz egitea eta guretzako egokien litzatekeen garbiketa garbigarria aukeratzea. Besterik gabe, urte berri osasuntsua guztiontzat.



Josu Waliño. **Informatikaria**

## Olarro amaraunean

### ADSL. Etxean behar al dugu?

Ezer idazten hasi aurretik, onartu beharra daukat: ADSLak harrapatu nau. Modema ezagutu nuen lehenengo, eta hortik RDSLra pasatzea izugarriko aldea izan zen. Baina RDSLaren prezioa eta abiadura ezagututa ADSLa ezagutu dudanean, hau da txunditzea! Baina etxean horrelakorik behar al dugu? Nola dabilen azalduko dut lehendabizi: ADSLa ez da gure etxean jarri beharreko telefono linea berri bat. Etxean dugun betiko lineatik guk telefonoz hitz egitean erabiltzen ez ditugun frekuentziak erabiltzen dituen sistema baizik. Horregatik ADSLa erabiltzean, aldi berean erabil ditzakegu telefonoa eta Internet, modem arruntarekin ez bezala. Horrez gain, betiko modemaren aldean abiadura handiak hartzen dituen sistema da ADSLa. Gainera, ez dugu deirik egin behar Internetera konektatzeko, etengabe konektatuta baikaude. Horrek esan nahi du, gure ordenagailua piztuta utziz gero, zerbitzari moduan ere jar dezakegula, baina hori beste kontu bat da.

Beti bezala, ADSLak duen arazo handienetarikoa instalazioa da, monopolioa Telefonikak baitu: pentsa edozein konpainiak ADSL lineak eskaintzeko Telefonikaren lineak erabiltzen dituela. Laburtuz:

• **Abantailak:** abiadura azkarragoa, telefonoz aldi berean hitz egiteko aukera eta benetako tarifa laua.

• **Desabantailak:** Telefonikak monopolioa duela, garestia izan daitekeela Internet ez badugu asko erabiltzen.

Atera kontuak. Telefono fakturaren beldurrez bizi bazarete, ez izan zalantzarik; bestela, zuek ikusi abiadurak hainbeste diru balio duen.

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatu


*Juaristi*  
**JATETXEA**

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



Fitxa-teknikoa

**Liburua:** Lagun izotzia  
**Egilea:** Joseba Sarrionaindia  
**Argitaletxea:** Elkar  
**Urtea:** 2001



Sarriren lehen nobela

'Ez dok amairu'-ren garaietatik, euskal idazle garrantzitsuenetako bat da Sarri. Eta Martutenetik Imanol abeslariaren bafleetan ezkutaturik ihes egin eta erbesteko toki ezezagunetatik idazten duenetik mito bat bihurtu da .

Ipuin, narrazio, entsegu eta, batik bat, poesia liburu asko idatzi ditu urte guzti hauetan. Hor daude 'Izuen gordelekuetan barrena', 'Narrazioak', 'Ni ez naiz hemengoa', 'Atabala eta euria', 'Gartzelako poemak' eta 'Hitzen ondoeza', besteak beste. Hala ere gaur arte ez zuen nobelarik kaleratu. 'Lagun izotzia' da lehenengoa, eta Joseba Jaka Fundazioaren saria jaso du.

Bertan Goioren bizitza kontatzen da hiru istorio eta denbora ezberdin tartekatuz. Batetik Kalaportu, Deba eta Mutriku artean dagoen arrantzale herrixka, eta fraideen eskolaren artean pasa zuen ikasturte bat, lehenaldian. Bestetik Hego Ameriketako erbestean errefuxiatuen eta inmigranteen ondorengo babesean izotzuta, hitzik egin ezinda, pasatzen ari den denboraldia, orainaldian. Eta azkenik, etorkizunean, zientzialari batzuekin batera Antartidara, kontinente izotzura, egingo duen espedizioa.

Nobela da baina Sarriren poesiarako gaitasuna da liburuak ematen duen gozamen handiena. Deskribapenak itzelak dira: Kalaportuko marinela tabernak, fraideetako klaseak, Nikaraguako sanatorioa, iceberg-en kolore eta mugimenduak... Normalean poesia kontrako eztarritik sartzen zaionarentzat sarbide polita.

Pertsonaiei ematen dizkien bueltak ere aipagarriak dira. Istorio bakoitzak narratzaile ezberdina dauka, beste istorio batetako pertsonaia bat, eta liburuarekin batera eskutitz bat dator irakurlearentzat, seilu eta guzti, pertsonaia batek besteari bidali eta honek ireki gabe erretzen duena.

ZINE FORUM



Urtarrilak 31, osteguna  
*Los ríos de color púrpura*

Zuz: Mathieu Kassovitz  
 Akt: Jean Reno, Vincent Cassel

Orain gutxi Amelie zinta liluragarrian ikus ahal izan dugun Mathieu Kassovitz aktorea estatu frantziarreko zinegile gazte garrantzitsuenetako da. Orain bospasei urte sekulako arrakasta lortu zuen Parisko auzo pobre batean bizi ziren gazte batzuen istorioa kontatu zuen *El odio* film bortitzean. Jarraian egin zuen *Assassin(s)* melodrama ilunarekin kritika oso txarrak jaso zituen. Orain urte eta erdi Donostiako Zinemaldian estreinatu zen *Les rivières pourpres* interesgarri honekin, ordea, Kassovitz berriro ere kritikarekin eta ikusleekin adiskidetu da. Zinema kritikariek pelikularen maila ona txalotu dute. Ikusleei dagokienez, Alpeetako mendikatean kokatutako thriller hau azken urteetako pelikula arrakastatsuenetako da estatu frantziarrean.

Zer eskaintzen duen Kassovitzek pelikula honekin? Ikuslea lehen sekuentziatik harrapatzen duen thriller ikaragarria. *El silencio de los corderos* eta *Seven* bezalako filmetan maisuki landutako psikopaten generoa hartu, eta Umberto Ecoren *El nombre de la rosa* eleberrian agertzen zen monasterioaren antzeko espazio batean kokatu du Kassovitzek pelikula. Dekoratuak, espazioak, garrantzi handia dute pelikula honetako atmosfera tenebrista eta deserosoa lortzeko. Unibertitate hiri bat eta mendikate elurtu baten artean mugitzen den film bortitza da honakoa. Hilketa dotoreak, istorio interesgarria eta ustekabeko amaiera eskaintzen digu Kassovitzek hain izenburu polita duen pelikula honetan.



\* Eguneroko bazkaria  
 \* Pintxo eta bokatak  
 \* Koadrilentzako menu bereziak  
 \* Kazuelitak eta plater konbinatuak  
 Erribera kalea, 16  
 Tel. 943 862517



• Depilaketa (beroa, epela)  
 • Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa  
 • Aurpegia edertzeko sendabideak  
 • Gorputza edertzeko sendabideak  
 • Lurrindegia  
 • Solarium-a



\*kamisetak  
 \*txiskeroak  
 \*paperezko poltsak, e.a.  
 baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

Amets Arzallus eta Joxe Agirre bertso-poteoan.



## Bertso astea

Abenduaren 29an hasi zen Zumaiako Bertso Eskolak, Udalak lagunduta, hirugarren urtez antolaturiko Bertso Astea.

Itsaso Ibarra

Bertso Asteari Amets Arzallusek eta Joxe Agirrek eman zioten hasiera, Tomas tabernan hasi eta Erribera kaleko tabernetan egindako bertso poteoarekin. Saiora jende asko hurbildu zen eta tabernak leporaino bete ziren. Azken bertsoak Kofraiko balkoitik eskaini zituzten, bertsolari bakoitza alde batean jarrita, balkoitik balkoira aritu ziren bertsotan.

Bigarren ekitaldia gabon zaharreko ajea pasatu ondoren izan zen. Urtarrilaren 3an Jon Maia eta Xabier Amurizaren eskutik bertsoak kaletik Forondako ganbarara iritsi ziren.

Bertan XX. mendeko erradiografia egin zuten. Horretarako, azalpenak eman ondoren, Xalbador, Txirrita eta garaiko beste bertsolari batzuek hainbat gertakari historikoren inguruan eginiko bertsoak hartu zituzten ahotan, hala nola, Frankoren heriotzaren inguruan eginikoak, gerra garaikoak, etab. Emanaldi honek ere bertsozale asko bildu zituen bertara.

Bertso Asteari amaiera emateko, Bertso Eskolak hogeitau urte betetzen dituela aitzakiatzat hartuta, bertso afaria antolatu zuten Anade elkartearen urtarrilaren 4an. Afarian bertso eskolaren inguruko aurkezpena egin zen, hogeitau urtetan egindako hainbat

ekitaldi gogora ekarriz. Bertso eskolako kide izandakoei Joanitorekin ikasitako bertso zaharrak abestu zituzten eta bat-bateko saioa ere izan zen.

Afalostean, Joanito Dorronsoro Sariko (bertso paper lehiaketako) irabazleen izenak jakin ziren. Aurtengoan "Zumaiako Bertso Eskolak 20 urte" izan zen gaia eta bederatzi lagunek hartu zuten parte. Epaimahaikideak Jon Maia eta Eneko Dorronsoro izan ziren. Txapela, 30.000 pezeta (180,30 euro) eta oroigarria Xabier Azkueren eskuetara joan ziren. Bigarren saria, 15.000 pezeta (90,15 euro) eta oroigarria Josu Garatek eskuratu zituen.



Zoruen kutzilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



**Rakel**  
estetika

kiromasajea  
tatuajeak

Aita Mari 42, behea TEL: 943 862093



## Xabier Azkuerekin berriketan

### Nolatan animatu zinen lehiaketan parte hartzera?

Bertso eskolako 20 urteak ezagutu ditut, hasieran ikasle izan nintzen eta gero irakasle ere bai. Ekitaldiak antolatzen ere jardun naiz. Gaiak eskatzen zidan lehiaketan parte hartzea.

### Zein errima eta doinu erabili dituzu bertsoak osatzeko?

Bederatzi puntuko handia. Doinua Andoni Egañak Bertsoan Bai-en erabiltzen duena. Doinu luzea da gauzak esateko aukera ematen duena.

### Irabazi duzun lehen txapela izan al da?

Beste sari batzuk ere irabazi ditut, eskola mailako sariak. 1992an Gasteizen Euskal Herri mailako lehiaketan bigarren geratu nintzen. Andoni Egañak lortu zuen saria.

Hau lehenengo txapela izan da niretzat eta ilusio handiz jaso dut. Emozionantea izan zen Joanitok ematea, beti miretsi izan dut eta pozez hartu dut saria bere eskutik.

### Oraingoan bertso paper lehiaketa irabazi duzu. Bapateko lehiaketa egingo balitz animatuko zinateke?

Garai batean aukera izan nuen bapatean aritzeko eta ez nuen parte hartu. Orain ere ez nintzateke animatuko, horretarako ahalmen berezia behar da.

### Zer moduzko giroa egon zen afarian?

Lehenengo aldiz egin da sari banaketa afari baten ondoren. Lagun asko bildu ginen eta polita izan zen beste parte hartzaileek beren bertsoak abestea.

*Bertsotarako gaitasun hori  
jaiotzezko ezaugarri  
dela pentsatu izan du askok  
horien artean "Basarri"  
baina azken bi hamarkadetan  
lanean buru-belarri  
gure eskolak bertso zaharrak  
hartuta beti oinarri  
sortzen ikasten ere lagundu  
dio hainbat zumaia  
eta guztien mugarri  
sendo eta gozagarri  
bertsolaria "egiten" dela  
frogatzeko nahi dut jarri  
abuela eta abuelo haien  
biloba erakusgarri*

*Bertso-munduak berez baditu  
zenbait joera mistiko  
hainbat ekintza zeremoniatu  
diruditenak errito  
dotrina horren predikuetan  
bertsoa bera da jaingo  
badakizue garai batean  
apaiz izan zen Joanito  
gure herrian fede berria  
zabaldua digu nahiko  
ehunka neska-mutiko  
bihurtuta akolito  
sinesmen horri gogor eustea  
eskatzen du belauniko  
guk hola bizi dugun artean  
bertsoa ez baita hilko*

*Bertso-eskola oraintxe dago  
betetzear hogeit urte  
hezkuntza-mailan egin duena  
azpimarratu nahi nuke  
opari gisa abenduaren  
hamaseia har lezake  
azken saioan gazte guztiek  
lan bikaina egin dute  
eta soinean bertso-eskolen  
zigilua daramate  
Egaña dute uharte  
inguratuta daukate  
zazpi itsasok bustitzen ditu  
haren lurak orain arte  
Belodromoko herrian aurten  
bertso-eskolak alkate*

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

**Maite**  
ileapaindegia

**Rosi**  
garbiketak

- \* Etxeak eta dendak
- \* Enpresa eta auzo lanak
- \* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

**SIWA**  
Belardenda

Basadi 5C  
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



# ur tarrila agenda

## 9

**larunbata**

**10:30etan**

**Foronda Kultur  
Etxean**

**KONTROL MENTAL IKASTAROA**  
Behin udal agintari bati entzun genion: "hau da hau burua kontrolatzeko gogoal!". Badirudi zumaiarrek gogoko dutela burua kontrolpean izatea. Foronda Kultur Etxean antolatzen diren ikasta-

roetan jendeak duen erantzunaz ohartzean, badirudi hala dela, jendeak burua kontrolpean izan nahi duela. Hori dela-eta, eta udazkenean antolatutako ikastaroak izan zuen arrakastaren ondorioz, kontrol mental ikastaroa jarriko da martxan aurten ere. Otsailaren 9tik martxoaren 16ra bitartean, larunbatero izango da ikastaroa. Izenemateak Forondan egin beharko dira otsailaren 5a baino lehen. Matrikula, ohi bezala, dohain izango da.

## 25

**ostirala**

**ANTZERKIA**  
Esther Uriaren eskutik "Urak dakarrena... glu, glu, glu"

**22:00etan**

**Aita Mari zinean**

**BAINIKA IKASTAROA**

Aurten ere bainika ikastaroa izango da. Aurreko urteetako ohiturari jarraituz, hainbat herritar arituko dira kultur etxean bainika erara jotzen. Otsailaren 1etik hasi eta maiatzaren 31 arte izango da ikastaroa. Bi txanda izango dira, arratsaldeko 3etatik 5etara eta 5etatik 7etara. Matrikula 36 euro izango dira, eta izenemateak hilaren 18tik 29ra egin ahal izango dira Foronda Kultur Etxean.



 **Ur-gintza SL**

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK  
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK  
ERAKUNTZA LANAK - BAINUGELAK  
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g  
20740 IRAETA - ZESTOA

Tel. 943 148082  
Faxa: 943148124  
78 postakutxa

**TXALAPARTA**  
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2  
Tel. 943 143089



**TXINGURRI**  
Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20750 ZUMAIA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUZ  
GIPUZKOA  
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
... mantenimendua  
Nekazaritza zerbitzuak  
Kirol zelaien mantenimendua  
Txostenak ...  
aholkularitza teknikoak,  
Balorazioak

ILE APAINDEGIA

**herrea**  
**Uranga**

Etxezarreta, 19 Tel. 943 862342



**Ardantzabide**

Sukaldeak  
Egongelak  
Era guztietako logelak  
Mahaiak  
Ateak  
Leihoak  
Horma armairuak  
Tarimak  
Era guztietako arotz lanak



**Altzariak** *Larunbat arratsaldetan irekita!!*

Hego kalea, 4 5. pabilioia  
Tel./Faxa: **943 86 25 32**  
TAILERRA: Santixo auzoa 40\*



**ZUMAIA MOTOR  
CITROËN C5**

Santixo auzoa, 22  
Tel/faxa: 943 14 31 43



**teknologia digitala 100% erabilgarria**